



# ALDUNDIAREN JARDUERARI LOTUTAKO KARBONO AZTARNA KONPENTSATZEA



## ZERGATIK?

Klima-aldaketa XXI. mendeko ingurumen-erronka nagusietako bat da, nagusiena ez bada, eta horrek bere eraginak arintzeko eta horietara egokitzeko premiazko neurriak eskatzen ditu. Foru Aldundiak urtero aurrezteko, eraginkortasun energetikoa eta sorkuntza berriztagarriko ekintzak egiten ditu bere instalazioetan, eta proiektu honen bidez bere isuriak konpentsatu nahi ditu lurraldeko karbono-hustutegietan inbertituz.

## NORK?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak



## ZERTARAKO?

Gipuzkoako Foru Aldundiaren isuriak konpentsatu, lurraldeko karbono-hustutegien gaitasuna handituz eta hobetuz.

## NOLA?

Gipuzkoako Foru Aldundiak jaulkitako CO<sub>2</sub>eq tona bakoitzeko diru-kopuru bat emango da (Naturklima Fundazioak finkatua), CO<sub>2</sub> xurgatzeko proiektuetan inbertitzeko eta, horrela, sortutako emisioak konpentsatzeko.



## NON?

Lurraldekoa

## NOIZ?

2022/10/10



# 200.000€